

### 3. HEZKUNTZA BATZORDEAREN AKTA

---

Baztando Udaletxeko Batzar gelan **2012ko urtarrilaren 24an**, arratsaldeko 6:00etan

#### **BERTARATUAK:**

Jasone Altxu(Ikastola)  
Maite Iturralde (Ikastola)  
Isabel Ibarrola (S. Franzisko Javier)  
Ane Gaztelumendi(San Franzisko Javier)  
Itziar Bidegain(S. Francisco Javier)  
Xabier Ballarena (Ornozko eskola)  
Maite Oteiza (Zigako eskola)  
Nora Salbotx (Amaiurko eskola)  
Maidier Bereau (Baztan Haur eskola)  
Mirentxu Lournagarai (Gurasoa)  
Mari Carmen Iribarren (UPN)  
Maitane Maritorea (Bildu)  
Maite Oteiza (Bildu)

#### **GAI ORDENA:**

- ⇒ Lodosa ikastola.
- ⇒ Obrak.
- ⇒ Auzolanak.
- ⇒ Apustu energetikoa.
- ⇒ Aurrematrikulazio kanpaina.
- ⇒ Etorrinei bideratutako kanpaina (Sakanako eredu) Heldu den urterako.
- ⇒ Familietan Euskara sustatzeko kanpaina: egitasmoan parte hartzeko izen eman zuten eskolek data eta tokia hautatzea.
- ⇒ San Anton eguneko zozketari buruzko galdera bat.
- ⇒ Guraso, ikastetxeetako langileria eta hezkuntza formalaz haratagoko herritarren parte hartzea hezkuntza batzordea.
- ⇒ Hik hasiko aldizkariaren berri eman.

#### **BATZORDEAREN NONDIK NORAKOAK:**

Maitane Maritorenak hitza hartu du Maite Oteiza Hezkuntza zinegotzi berriari ongi etorria emateko, eta hemendik aitzinerat bere ardurapean utzi du bilkura.

1.- **LODOSAKO IKASTOLA:** ikastola honen egoera ekonomikoa zertan den azaldu du, eta laguntza ekonomikoa jasotzeko ekimen bat martxan paratu dutela azaldu du: marrazki bat = euro 1. Norbanakoak ematen ahal duen laguntzaz gain, ea Udalak horretan parte hartzea zer irudituko litzaiekeen galdetuta ongi iruditzen zaiela erantzun dute gehienek, nahiz Baztango udalaren egoera ekonomikoa ere larria dela aipatu.

2.-**OBRAK:** Hainbat herritako eskoletan Eguberrietako oporrak aprobetxatuz enplegu babestuko langileek zenbait lan egiten ahalko zutela pentsatzen bazen ere, langile hauei kontratua urte zaharrean bukatu zitzaieela azaldu du Maitek, hori dela eta aurreikusitako lanak egin gabe gelditu ziren. Enplegu babestuaren deialdia heldu den asteen eginen dela jakinarazi du, eta horrekin batera azaldu du langile hauek ez dituztela edozein lan egiten ahal, baldintza eta muga batzuk bai baitituzte.

Egiten ahal dituzten lanen artean, kortinak egitearena azaldu da. Hainbat eskolatan "eguzkiarekin" arazoak dituzte, hori saihesteko, langile hauekin josten ikasteko ikastaro

edo tailer bat eginez gero, beraiek egiten ahalko lukete. Gisa hauetako lanen zerrenda bat egitea proposatu du Maitek.

3.- **AUZOLANA:** Enplegu babestuko langileek egiten ahal dituzten lanez gain, bertze anitz gauza auzolanean egiten ahal direla aipatu da; hala nola, krisketak aldatu, zerbait pintatu...

4.- **APUSTU ENERGETIKOA:** Martxan dago.

Ikastolak bere kezka adierazi du apustu energetiko hori ez dutela betetzen ahal. Galdararekin dituzten arazoak direla eta, energian murriztea ia ezinezkoa baitaie.

Xabier Ballarenak adierazi du herrietako eskolak materiala eta proiektua prestatzen ari direla, eta egina dutena bertze eskoletarat igorriko dutela. Gauza bera adierazi du Isabel Ibarrolak ere.

Nora Salbotxek energian murrizten ari direna zenbatekoa den jakiteko ea iazko fakturak lortzerik duten galdetu du, nahiz jakinaren gainean egon eguraldiak zerikusi handia duela kontsumoan, eta aurtengo negua ona dela.

5.- **AURREMATRIKULAZIOA:** 2009.urtean sortu ziren haurren zerrenda eskuragarri dutela aipatu da, emailaz igorri zitzaieela denei. San Frantzisko Xabier eta Ikastolakoei ez zaie informazio guztia ailegatu.

Datu babesaren legea dela eta izen abizenak bakarrik ematen ahal direla aipatu da.

5.- **ETORKINEI BIDERATUTAKO KANPAINA:** Maitanek adierazi du Baztanen gaur egungo matrikulazioa zertan den ikusita eta A eredu etorkinei "esker" bizi dela jakinik, etorkinei bideratutako matrikulazio kanpaina egiten ahal dela. Horretarako Sakanan erabili dituzten ereduak erakutsi ditu hainbat hizkuntzatan. Kanpaina hau heldu den urtera begira gogoan atxikitzeko aipatu du.

Bertzalde, salbuetsien egoera zertan den ere adierazi du gai honekin lotuta. San Frantzisko Xabierren euskara ikasgaia ematetik salbuetsiak direnak klasean egoten direla erran du San Frantzisko Xabier ikastetxeko zuzendariak. Ikaste horiek berak Lekarozko instituturat joaten direlarik, klasetik atera egiten dira.

6.- **FAMILIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO KANPAINA:** Aitzineko Hezkuntza Batzordean familian euskararen erabilera sustatzeko kanpainaren barne egitasmo, tailer eta hitzaldi desberdinak proposatu zitzaizkien batzordekideei. Eskola bakoitzak zer nahiko lukeen jakin nahian, informazioa igorri zen eskola guztietara eta aste bateko epea eman zitzaien erantzuna emateko. 7 eskolek baiezkoa eman zutela ikusirik eta guztiek "kontu txikiak eta jolas tailerrak" hautatu zuten, kuartelka egiteko aukera aztertu da ekonomikoago izateko.

Kuartelka egin ahal izateko zalantzak agertu dira ea zer nolako tokia beharko den, zein baliabide behar ote diren... horren arabera herri bat edo bertze hautatzeko. Maitanek azaldu Lohitzune euskara teknikaria paratuko dela beraiekin harremanetan beraien zalantzak argitzeko eta datak finkatzeko.

7. **SAN ANTON:** San Antongo zozketan bolak ateratzen dituzten haurrak beti Elizondokoak direla ikusirik, Nora Salbotxek galdetu du ea irizpideren bat jarraitzen den hori horrela izateko. Maitek erantzun dio, Jon Elizetxe arduratzen dela hortaz, baina ziurrenik erraztasunarengatik hartuko direla Elizondoko haurrak. Dena den, gainerako herrietako eskoletako haurrak prest baleude, lehenagotik jakinik ez litzateke inongo arazorik izanen bertze haurrek ere parte hartzeko.

**8.-HIK HASI:** Maitanek azaldu du proposamen bat ailegatu dela HIK HASItik 0-2 urte bitarteko haurren gurasoendako aldizkari informatibo bat: etxean hezitzeko hiruhilabetekaria.

Lehenbiziko alea doan litzateke, gainerako hirurak 20 € ordaindu beharko lirateke (urtean lau ale dira). Aldizkaria 0-2 urte bitarteko haurren gurasoendako dela ikusirik, Haur Eskolararekin bideratzen ahal dela ikusi da. Haur Eskolarat ez doazen haurren zerrenda Udaletxetik ateratzen ahalko da.

**GALDE ESKEAK:**

Isabel Ibarrola: 3 zuhaitz landatu nahi dituztela eta, ea zer egin behar duten galdetu du.. Maitanek erantzun dio eskaera idatziz sartzeko.

Xabi Ballarena: Konposta egiteko jende anitzek izena eman duela eta, ea egin beharreko ikastaroa Baztanen egiterik dagoen galdetu du.

Maite Oteizak familia-haurrak-gazteak deritzon programa martxan paratzekotan dagoela aipatu du. Diagnostiko bat egin ondoren eta beharrak zeinek diren ikusi ondoren, hezitzaile bat lortzeko aukera dagoela aipatu du, horretarako azpibatzerde bat dagoela adieraziz.

**Hurrengo HEZKUNTZA BATZORDEA, 2012ko apirilaren 24an, 18:30etan.**